

GOBERNU BATZORDEARI

Donostiako Udala, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Sareko kide denez gero, azken bederatzi urteotan zenbait jarduera bideratu ditu, batez ere haur eta gazteentzat, balio prestakuntza eta hezkuntzaren alorrean.

Jarduera horien helbururik behinena zen demokrazia, askatasuna, bakea, giza eskubideenganako begirunea eta defentsa, elkartasuna eta aniztasuneko elkarbizitzaren balioak hedatzea, bake kultura bat sortzea noraezekoa delakoan, oinarri hartzen baititu terrorismoaren, indarkeriaren, diskriminazioaren eta gizarte bazterkeriaren biktimganako onarpenera eta bultzada.

Jarduera horiek guztiek **Donostia, bake kulturarako gunea** programa osokoan sartuta behar dutelakoan daude Alkatetza eta Hezkuntza, Gazteria, Lankidetzeta eta Tolerantziako Zinegotzigoa, erreferentzia izan dadin hainbat sektoretatik, demokraziaren balioen bitartez, gizarte baketu, zuzenago, libreago eta solidarioagoaren alde borrokatzeko proiektuan partaide sentitzen direnentzat. Halaber, beharrezko deritzote **Itsasargi, giza eskubideen faroa** deritzon gune fisikoa sortzeari, etxe horrek bere baitara bildu ditzan egin nahi diren ekintza guztiak eta giza eskubideen inguruko hausnarketa eta ekintza erreferentzia izan dadin.

Beharrezko da Programa horrek erakunde babes zabala izatea, gobernuz kanpoko erakundeen, entitate pribatuen eta udal alor guztien konpromisoa duela, hala, Donostiako Udalak bake kultura horrekin duen konpromisoa denon artean zabaltzeko eta aditzera emateko.

Hargatik, Alkatetzak eta Hezkuntza, Gazteria, Lankidetzeta eta Tolerantziako Zinegotzigoak proposatzen diote Gobernu Batzordeari honako hau onartzea

ERABAKIA

1.- Onartzea Donostia, bake kulturarako gunea proiektua, biok biotara prestatu baitute Alkatetzak eta Hezkuntza, Gazteria, Lankidetzeta eta Tolerantziako Zinegotzigoak.

2.- Dokumentua bidaltzea Donostiako organizazio, erakunde, entitate pribatu, hezkuntzako erakunde, gobernuz kanpoko erakunde eta laneko foroei, jakitun egon daitezen eta hura ebaluatu ondoren, ekimen berriak ezagutzera eman ditzaten.

3.- Dokumentuak jasotako ekimen berriak abiarazteko izapideei ekitea.

Donostian, 2003ko martxoaren 12an.

ALKATEA

ARRITXU MARAÑON

Gazteria, Hezkuntza, berdintasun eta Tolerantziako ordezkaria